

HONDAKINEN BILKETA SISTEMA ALDATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

2015-02-26. 2.SAIOAREN AKTA



BILERAREN XEHETASUNAK:

- Bilera zenbakia: 2
- Data: 2015eko otsailaren 26a
- Lekua: Udaleko areto nagusia
- Hasiera ordua: 16:00
- Amaiera ordua: 17.15

DINAMIZAZIOA:

- Parte hartzaile kopurua: 18 herritar, 13 emakume eta 5 gizon
- Dinamizatzaileak: Maitane Barrenetxea eta Markel Ormazabal.



1. ONGIETORRIA ETA SAIOAREN KOKAPENA

Saioaren hasieran Maitane Barenetxeak, Aztikerreko bideratzaileak, hartu du hitza eta bertaratutakoei ongi etorria eman die.

Hasieran gaurko saioaren kokapena egin du, saio honekin prozesua 2.fasea sartzan dela gogoratu. Orain arte Deban hondakin bilketa sistemaren azterketa egin da saioetan eta Gipuzkoako herri desberdinetako hondakin bilketa sistemak ezagutzeko mahaingurua burutu zen aurreko astean.

Hasteko, fase berri honen, hau da, bilketa aukera ezberdinen azterketa, kokapena egin du eta mahainguruaren laburpentxo bat azaldu du, atera ziren ideia nagusik azalduaz.

Gaurko saioan mahainguruan aurkeztutako 3 sistemak aztertu eta baloratuko dute herritarrek.

Hiru sistema hauek, 4 frakzio nagusiak atez ate biltzen dituenak, edukiontzi derrigorrezko sistema eta sistema mixtoa, prozesu honen helburuetako batzuk bete ditzazketela ulertuta aukeratu dira. Hondakinen gaikako bilketa %60ko tasa bermatzen dutela ulertuta.

Prozesu honekin Debako hondakin bilketa sistemaren aldaketa martxan jarriko da eta aldaketa hauen gakoak honela laburbildu dira:

- Hondakin bakoitza dagokion tokira bota eta biltzea
- Organikoa eta errefusa ondo bereiztea eta biltzea. Orain arte egiten ez den bezala lan hau ondo egitea aldaketaren giltzarria dela ulertzen da
- Hondakinen gaikako bilketa %60koa izatea bermatzea

Eta gaurko saioan sistema desberdinak aztertuko dira, nagusiki bata eta bestearen arteko desberdintasunak aspektu hauetan ematen direla zehaztuta:

- Biltzen diren hondakinen jarraipena individualizatua edo taldekatua izatea
- Bilketarako ordutegia

Dinamizatzaileak azaldu du hondakinak biltzeko aukera gehiago daudela eta herri bakoitzak bere berezitasunak ezartzen dituela, beraz, gaurkoan sistema bakoitzak dauzkan ezaugarri nagusiak azaldu eta aztertuko dira.

Honela gaurko saioaren gai eta denborak zeintzuk izango diren azalduta talde txikitik banatu dira partaideak.

2. SISTEMA BAKOITZAREN AZTERKETA

Azalpenak burutu ondoren, 2 taldetan banatu da talde handia eta aretoan sortutako 3 txoko ezberdinetatik pasa dira. Txoko bakoitzean mahainguruan ikusi ziren 3 sistemak aztertu dira: atez ate, edukiontzi betebeharrezkoa eta sistema mixtoa.



Txoko bakoitzean erronda bat egin dute partaide guztiek, sistema guztien inguruko azterketa burutuaz eta 6 aldagairen inguruan ikusten dituzte indar-guneak eta ahulguneak azaleratuz.

Jarraian, dinamikaren emaitzak aurkezten dira:



TXIPDUN EDUKIONTZIA / CONTENEDOR MEDIANTE CHIP

Hauek dira kokapen gisa sistema honen ezaugarri nagusiak:

- HONDAKINAK EDUKIONTZIETAN, FRAKZIO BATZUK TXIPAREKIN (Organikoa eta errefusa)
- HERRIAN ZEHAR EDUKIONTZI GUNE DESBERDINAK DAUDE (Irla osoak)
- JARRAIPENA TALDEKATUAK (100-200 pertsona)
- ORGANIKOA ETA ERREFUSA BOTATZEKO EGUNAK MUGATU daitezke
- INBERTSIOA: TXIPak ETA EDUKIONTZIAK
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEA (HOBARIAK)

ALDAGAIA	INDARGUNEAK / FORTALEZAS	AHULGUNEAK / DEBILIDADES
Gaikako bilketa / Recogida selectiva		<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko edukiontziak badira ez da sobera hobetzen • Egun zehatzak jartzea jasoketarako • Komertzioen kasuan hartzea arazo bat da
Erosotasuna(ordutegia,...) / Comodidad	<ul style="list-style-type: none"> • Edukiontzien gertutasuna • Komertzioen kasuan erosoago 	<ul style="list-style-type: none"> • Udatiarrak datozenean akumulazioa eta usain txarrak (frakzio indibidualizatuekin) • Posteak etxe aurrean • Turismoan eragina posteek
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua / Impacto económico: recogida y tratamiento	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkizunera hobeto 	<ul style="list-style-type: none"> • Garestia
Egungo azpiegituren erabilera / Utilización de las infraestructuras		<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo kopuruekin ezin da
Herritarren egokitzapena / Adaptación de los ciudadanos		<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientzia ez dutenek ez dute egingo
Erabiltzaileen erantzukizuna Kontzientzia / Concienciación de los usuarios	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientzia hartzeko eredu onena • Honen neurketak behar dira 	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio gehiago behar da



4 FRAKZIOAK ATEZ ATE MODU INDIBIDUALIZATUAN / 4 FRACCIONES PUERTA A PUERTA INDIVIDUALIZADAS:

Hauek dira kokapen gisa sistema honen ezaugarri nagusiak:

- FRAKZIO GUZTIAK MODU INDIBIDUALIZATUAN
- BILKETA eta JARRAIPENA INDIBIDUALIZATUA DA (Familia bakoitzak jasotzen duenaren jarraipena dago)
- %75-%85 inguruko GAIKAKO SAILKATZE TASAK BERMATZEN DITU
- HONDAKINAK BILTZEKO ORDUTEGIA ETA EGUTEGI ZEHATZA DAGO (Egun bakoitzean frakzio bat jasotzen da eta ordutegi batekin)
- AUKERA DESBERDINAK (Zintzilikarioak, atariak...)
- INBERTSIOA ALTUA HASIERAN (diru-sarrerekin amortizatzeko aukera)
- LANDA GUNEETAN EKARPEN GUNEAK DAUDE / EN LA ZONA RURAL SE CREAN ZONAS DE APORTACIÓN
- LARRIALDI GUNEAK EXISTITZEN DIRA (Urgentziazko kasuetan egun horretan biltzen ez dagokion frakzioa jasotzeko aukera eskaintzen duena)
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEA (HOBARIAK)
- KOMERTZIOETAN BILKETA ATEZ ATE EGITEN DA

Hona hemen Atez Ateko sistemaren inguruan sortu diren iritziak:

ALDAGAIA	INDARGUNEAK / FORTALEZAS	AHULGUNEAK / DEBILIDADES
Gaikako bilketa / Recogida selectiva		<ul style="list-style-type: none"> • Zailena • Lan gehien eskatzen du
Erosotasuna(ordutegia,...) / Comodidad	<ul style="list-style-type: none"> • Zuk erabakitzea non atera 	<ul style="list-style-type: none"> • Eguna-ordutegia mugatuta • Pendiente egotea • Ez da estetikoa • Sanidadearen baldintzak
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua / Impacto económico: recogida y tratamiento		<ul style="list-style-type: none"> • Tasak??
Egungo azpiegituren erabilera / Utilización de las infraestructuras		
Herritarren egokitzapena / Adaptación de los ciudadanos		
Erabiltzaileen erantzukizuna Kontzientzia / Concienciación de los usuarios	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientziazio maila altuena eskatzen du 	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzientziazio maila altuena eskatzen du



SISTEMA MISTOA / SISTEMA MIXTO:

Hauek dira kokapen gisa sistema honen ezaugarri nagusiak:

- %75TIK GORAKO BIRZIKLATZE TASA ESKAINTZEN DU batez beste
- FRAKZIO BATZUK EDUKIONTZI BIDEZ ETA BESTE BATZUK (ORGANIKOA EDOTA ERREFUSA) MODU INDIVIDUALIZATUAN
- ORDUTEGI ETA EGUTEGIAK (Edukiontzietan ez dago eta Organiko eta errefusan mugatua)
- INBERTSIOA HANDIA HASIERAN (diru-sarrerekin amortizatzeko aukera)
- LARRIALDI GUNEA DAUDE (FRAKZIO BEREZIETARAKO)
- AUZOKONPOSTA ETA AUTOKONPOSTA INDARTZEN DA (HOBARIAK)

Hona hemen sistema mistoaren inguruan sortu diren iritziak:

	INDARGUNEAK / FORTALEZAS	AHULGUNEAK / DEBILIDADES
Gaikako bilketa / Recogida selectiva		<ul style="list-style-type: none"> • Klienteak gaizki egiten badu ezin du jabeak ordaindu
Erosotasuna(ordutegia,...) / Comodidad	<ul style="list-style-type: none"> • Ordutegia egun erosoagoa 	
Inpaktu ekonomikoa: bilketa eta tratamendua / Impacto económico: recogida y tratamiento		
Egungo azpiegituren erabilera / Utilización de las infraestructuras		
Herritarren egokitzapena / Adaptación de los ciudadanos		
Erabiltzaileen erantzukizuna Kontzientzia / Concienciación de los usuarios		
Gaikako bilketa / Recogida selectiva	<ul style="list-style-type: none"> • Komertzioei atez ate egitea 	



3. ITXIERA ETA HURRENGO URRATSAK

Dinamizatzailleak saioari bukaera eman dio eta prozesuak izango dituen hurrengo urratsen berri eman du.

2.faseko saio hauek behin bukatuta Hondakinen Batzordean herri galdeketari begirako aspektu desberdinak aukeratuko dira (zenbat aukera, sistema bakoitzaren ezaugarri zehatzak eta herri galdeketarako prozedura zehaztu).

Ondoren herritarrekin 3 saio informatibo burutuko dira herri galdeketarako aukerak eta prozedurak aurkeztu eta sozializatzeko.

Saio honen hitzordua hurrengoa izango da:

Datorren martxoaren 17an arratsaldeko 16:00etan